


Merkatuko zerbitzuen salmentak % 29,0 murriztu dira 2020ko bigarren hiruhilekoan Euskal AEn

Atzerakada orokorra izan da adar guztietan: muturretan, Ostalaritzan -% 64,3koa izan da, eta Informazio eta Komunikazioetan -% 4,8koa

Merkatuko beste zerbitzu batzuk (aurrerantzean, Merkatuko zerbitzuak) epigrafean bildutako sektoreek % 29,0ko beherakada izan dute salmentetan, aurreko urteko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, termino errealetan eta egutegiaren ondorioak behin kenduta, Eustaten datuen arabera.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, zerbitzu horien salmentak % 24,0 murriztu dira, prezio konstanteetan eta urtaroen ondorioak ezabatu ondoren.

Koiuntura-indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. Bestelako merkatu-zerbitzuak. (%)



Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Merkatuko zerbitzuen barruan, salmenta errealean urte arteko atzerakada orokorra da. Nabarmenezkoa da Ostalaritza-sektoreko salmenten beherakada, non % 64,3ko jaitsiera aurreikusten baita. Atzetik datoz Administrazio-jarduera eta zerbitzu osagarrien salmenta-indizea (% 31,7ko jaitsiera), Garraio- eta biltegiatze-indizea (% 25,2ko jaitsiera), Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoen indizea (-% 10,9 urte artean) eta, azkenik, Informazio eta komunikazioen sektorearena (% 4,8ko murrizketa). Hori guztia, aurreko urteko bigarren hiruhilekoaren aldean eta behin zuzenduta egutegi-ondorioak.

Lurraldeen arabera, eta prezioen eta egutegiaren eragina kenduta, Araban urte batetik bestera % 32,2 jaitsi da salmenta-indizea, Bizkaian % 26,2 eta Gipuzkoan % 33,2.

Euskal AEko Merkatuko zerbitzuetan dabilzan langileen indizea % 5,6 jaitsi da urte arteko aldian. Aurreko hiruhilekoaren aldean jaitsiera % 4,9koa da.

Euskal AEko zerbitzuen koiuntura-indizea. Bestelako merkatuko-zerbitzuak. Prezio finkoak. Behinbehineko datuak. II/2020

	t / t-4	t / t-1	A (t) / A (t-4)
INDIZE OROKORRA	-29,0	-24,0	-17,7
Garraioa eta biltegiatzea	-25,2	-21,3	-14,8
Ostalaritza	-64,3	-58,0	-40,8
Informazioa eta komunikazioak	-4,8	-2,6	-3,0
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	-10,9	-10,8	-7,1
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	-31,7	-27,8	-18,8
LURRALDE HISTORIKOAK			
Araba	-32,2	-29,7	-18,2
Bizkaia	-26,2	-20,9	-16,1
Gipuzkoa	-33,2	-27,6	-20,5
ENPLEGUA	-5,6	-4,9	-2,9

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

At/A(t4) Orainarteko urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

INFORMAZIO OHARRA

Ekainaren 21ean amaitu zen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaraturako alarma-egoera, **COVID-19ak** eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeari buruzkoa. Bertan hartutako aparteko neurriek eragin zuzena izan dute ZKIn parte hartzen duten establezimenduen jardueran.

Indize ekonomiko koiuntural honetan eta beste indize ekonomiko koiuntural batzuetan kontuan hartzen diren langile enplegatuen artean, Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espediente (EABEE) duten pertsonak sartzen dira, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) Methodology of Short Term Business Statistics eskuliburuan jasotzen duen enpleguaren definizioari jarraituz.

Egutegiaren ondorioak zuzentzeko eta serieak urtaro-ondoriorik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaian duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten enpresa guztiei egindako ahaleginagatik aparteko baldintza hauetan. Haiei esker, 2020ko bigarren hiruhilekoko ZKI laginaren % **90,74ko estaldurarekin** kalkulatu da (laginaren informazioa gehienbat uztailen eta abuztuan jaso da).

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62